

## **ELENA BARRUTIA**

Lutxi Iribarren

*Sara*

Bo, ez dakit sobera nola hasi, betidanik irrigarri atzeman ditut hori egiten duten pertsonak, baina ez da garai honetan denbora falta banu bezala. Atzo arratsean, film arras on bat ikusi dut, Anne Frank juduaren bizia aipatzen duena. Ez baldin badut ere Anne Frankek bezalako bizi zaila, konplikatua edo harrigarria, bera bezala nire bizia idazten hasiko naiz.

Hasi baino lehen, galdera hau dut zuretzat: zu, egunkari hau irakurtzen duzun hori, nor ote zara?

Nire iraganeko ni, nire seme/alaba beharbada, edo nire egunkari gainean erori den edozein pertsona (edo nor)?

Segur aski amesten ari naiz, liburu hau errauspean egonen da...

Hasteko, edonor zaren, izen hau emanen dizut, Iker. Egun on, Iker, beharbada berdin zaizu eta zure irakurketa geldituko duzu, baina horra nire aurkezpen laburra. Elena Barrutia naiz, sortu naiz denak bezala, baina ez dakit ea kointzidentzia bat den nire urtebetetze eguna nire izenaren bestan

dela, abuztuaren 18an. Sortzez hiriburutarra naiz, irristaketa nire pasioa da eta parte handi batez horregatik da neska bakartia naizela. Joan den urtean 15 urte nituela Frantziako txapeldun bukatu nuen, Paris inguruko talde on batek errekrutatu ninduen eta duela 2 hilabete etxe aldaketa egin dugu.

Gaur, Frantzia guzia konfinatua da, gu gure apartamentu ttikian blokeatuak gara.

## **2020ko martxoren 18a, ortzeguna**

Konfinamenduko bigarren eguna da, euritsua, eta jakizu, Iker, jada aspertzen hasia naizela. Nire entrenamendu guziak ezeztatuak dira, ez dut gauza handirik egiteko. Irakurtzen hasi naiz, asper-tu naiz, mugikorrean aspertzen naiz, Netflix bukatu dut. Baina mugitzeko beharra dut.

Eskaileretan korrika egitera ideia ona dela uste duzu? Bo, zernahi gisaz ez dut bertze hauturik. Hamaiketan eskaileretan goiti-beheiti hasi orduko mutiko higuingarri bat bere pisutik atera eta bideo konferentzia batean dela erran dit. Nahiz eta muti-ko xarmanta izan, haserrealdi bat pasa diot pisuko pertsona bakarra ez delako eta deretxo dudalako nire kirola egitera.

Hori pasata, nire kirola egiteko gogoia gelditu zait eta bere gainean diren informazioak miatzen hasi naiz. Lucas deitzen da, 17 urte ditu (ni baino bat gehiago) eta Jean Macé lizeoan ikasle da.

## **Martxoaren 19a, ortziralea**

Gaur goizean, ortzirale goizero bezala, amak *mat* kurtsoa eman dit. A, bai, egia, ez dizut erran, etxean eskolatua naiz nire hamar urteetatik, egunero-ko patinatze entrenamenduagatik. Baina usaian ez bezala, azpiko pisukoak eskulanetan hasita trabatu gaituzte, eta amak igorri nau horiengana. Tok-tok-tok, Lucas da ate gibelean, ni gorri-gorri egin eta zer dudan galdetu dit. Lotsarik gabe soinu gutiago egitera galdetu diet eta bat-batean irriz karkailaka hasi da, beraz trufaka ari naizenez galdetuz eta atea gibeletik berriz hetsi du. Ni harriturik goiti joan eta berriz lanean hasi gara.

Arratsaldean berriz kirola egiteko gogoia dut, aski eguraldi aproposa da, korrika egitera joango naiz... Pariseko karrika ttiki batzuetatik, parke ttiki batera pasa naiz eta nire itzulia oren batez egin dut. Holako momentuetan dut Hiriburuko lasaitasun eta edertasuna faltan botatzen. Pentsatzen ari naiz kirol eskas horrek nire performenziaren ondorio txarrak izanen dituela, baina eskerrak bakarrik bi asteren afera dela.

## **Martxoaren 20a, larunbata**

Gaur ez dut fitsik interesgarri zuri kontatzeko...

## **Martxoaren 21a, igandea**

Egun igandea da, Frantzian Sainduaren eguna, nik errango nuke deabruarena. Usaian familia

ikusteko parada dut, hori ere Parisek kentzen dit. Nire biziko egun luze eta aspergarriena da eta jakizu egun zailak pasa ditudala. Nire sortetxeko ganbara handia, saloi argitsua, berriki moztutako belar berdearen usaina, baina gehienbat aitatzik egindako egurrezko bilintxi-balantxa, **ahaztezinak dira**. Ba al duzu holako leku maitagarririk?

### **Martxoaren 22a, astelehena**

Goizeko biak dira, ezin naiz lokartu... Nire tikitako oroitzapenak berriz heldu zaizkit. Momentu honetan bertze inori kontaezinak direnak. Horietariko bat, Laia. Nire tikitako lagun mina, ezagutu dudan lerratzaile hoberena. Bi hilabete genituela ezagutza egin genuen eta txoriaren bi hegialak bihurtu ginen, bata bertzea gabe ezin aitzina. Sei urte genituela lerraketa entseatu eta maitatu genuen. Hortik landa, pasio bat bilakatu zen, biak batera geldiezinak ginen, medailaz medaila genbiltzan. Azken bi urteetan nire mailak berea gainditu zuen, hori ez zuen onartu izan nahi eta nire bidea oztopatzen zidan. Mentalitate horrek gure artean bitxikeriak sortu zituen, bien artekoa geldiaraziz. Badakit alde batetik, beregatik ez nintzela Parisen izanen, nahiz eta bertzetik, berari esker hor naizen.

Oroitzapen franko bururatzen zaizkit, baina bat kontatuko dizut. Laiak ama-ikastolatik tema bat egiten zuen mutiko baten gainean. Aire hartzeetan gordezka segitzen genuen, bere begirada zaintzen

genuen (ikusteko ea Laia begiratzen zuen) eta hark egiten zuenean begirada bertze aldera ematen genuen.

Segur naiz Lucaseri aunitz neskek holako gauzak egiten dizkiotela...

Hori dena errateko lerratzeraz joaten naizenero berari pentsatzen dutala.

### **Martxoaren 23a, asteartea**

Goiz honetan amak usaiako *histo* kurtsoa eman dit. Bazkaltzeko tenorea etorrita goserik ez dut, ez bazkaltzeko erabakia hartu eta korrika egitera joan naiz, nire usaiako itzulia eginez. Gutiegi zela pentsatuz, gero Sissy Muaren (youtuberra) kirol programarekin segitu dut, baina fitexko norbaitek atea jo du. Izerdi trenpan atea ireki dut... Lucas da. Irriz erran dit: “ikusten ahalko nuke korrika ari den elefantea?”, barkamenak galdetu eta berak kirolik egiten zuenez galdetu diot. Badmintona egiten duela eta konfinamenduan ez duela gauza handirik egiten erran dit. Orduan, nirekin nire eguneroko korrika saioa egitera proposatu diot. Bihar goizean 8:30ean hitzordua eman eta bere apartamentura joan da.

Egia erran ez nuen uste kirolaria zenik, aski gorputz mehea baitu (uste baino muskulatuagoa izan behar da, segur aski).

Nire dutxa hartzerakoan, ispiluan begiratu eta gantzak ditudala ohartu naiz, segur aski konfinamenduarengatik da, beraz egunero afari/bazka-

ri/gosaria saltatzeko erabakia hartu dut. *48 kilo egi-ten ditut 1.65 metrorentzat eta nire helburua 45 kilotara pasatzea da.*

## **Martxoaren 24a, asteazkena**

Goizeko zortziak dira ez dakit nola jantzi, ongi jantzia eta kirolari egiteko... Nire kirol arropa ederrrenak hautatu, ileetan bi treza egin eta 8:26erako behegian nintzen. Bera aldiz bi minutuko berantarekin ailegatu da... Usaiako itzuli ttikia proposatu diot, baina berak bere itzulia egin nahi du, kuriositatez segitu dut.

Korrika egiterakoan kalakan, irriz segitu dugu. Bere itzulia arras polita atzeman dut eta iduritu zait berekin denbora usaian baino fiteago pasa dela. Gure pisuetara ailegatzerakoan nire telefono zenbakia eman eta agurtu gara.

Atea ireki eta ama oihuka hasi zait “non zinen? Kexatu gara, uste genuen zerbait gertatu zitzaizula...”. Oihualdi horrengatik ganbarara hupatu eta barnean gelditu naiz bazkaldu gabe. Berriz nire pisuaren puntua egiteko beharra dut: atzotik 250 gramo galdu ditut, iduritzen zait nire inguruko neska guziak tripa mehe eta muskulatua dutela, eta ez dut ulertzen zertako nirea gantzez betetzen den. Segur aski nire eguneroko kirola azkartu behar baitut.

Arestian gertatu den haserraldiari berriz pentsatzen dut eta ohartzen naiz nire burasoekin geroz eta gaizkiago pasatzen dela, amak beti gauzak gaiz-

ki egiten ditudala erraten dit, aita ez dugu ikusten, beti telelanean ari baita... Uste duzu hori guzia ni gabe hobeki pasako dela?

### **Martxoaren 25a, ortzeguna**

Gaur ez dut zurekin mintzatzeko gogorik...

### **Martxoaren 28a, igandea**

Barkatuuuu, ahantzi zintudan... lasai pasatakoak fite kontatuak dira.

Ortzegunean berriz ere amarekin haserretu gara, aita ez dugu ikusi eta nire eguneroko kirolari (korrika eta youtuberraren programa) bertze programa bat gehitu diot, abdoak eta izterrak lantzeko. Hara, ikusten duzun bezala ez da gauza handirik pasa. A, bai, eta Lucasekin ez gara ikusi.

Mezu bat igortzekotan naiz, baina ez dut irri-egingarri bilakatu nahi, zer egingo zenuke? Gero ez nuke beretzat zerbait sentitzen dudala pentsatzea nahi, niretzat lagun simple bat baita.

### **Martxoaren 29a, astelehena**

Goiz honetan, iratzarri eta trenputxartu eta amak ospitalera eraman nau. Medikiak ez burua hartzeko erran digu, segur aski erritmo aldaketa-rengatik baitzen, eta berriz etxera sartu gara. Etxean ama galdezka hasi zait, "ongi zara? ez duzu sobera kirolik egiten? aski jaten duzu? estresatua

zara?”... Ni, edozein adolezente bezala, segituan nire ganbarara igo naiz.

Mugikorra hartu eta Lucasen mezu bat ikusi dut: “Ongi?, jakin dut ospitalera joan zinela”. Ez jakinean zer erran, hauxe erantzun diot: “sobera konplikatu da mezuz esplikatzera, ikusten ahal gara?”. Bere erantzuna egun osoan itxoin dut, beldurtu naiz ea ez ninduen gehiago mintzatu nahi. Arratseko 21:24ean bere notifikazioa errezibitu dut: “plazerarekin! bihar goizean ongi zaizu?”. Beraz, berak ez pentsatzeko beti telefonoan den pertsona bat nintzela, 21:59ean bere mezuari eszaturik erantzun diot; bihar goizeko 10:30erako eskaileren azpian egonen nintzela.

Beldur dut bihar goizean errango diodanean egia, ez duela nirekin egon nahiko... Zer uste duzue zuk, egia erran behar diodala bere erreakzio txarra arriskatuz edo egia gorde eta sekretua niretzat atxikitzea?

### **Martxoaren 30, asteartea**

Goizeko hamarrak berantean iratzartzen naiz, denbora faltaz ez dut gosalduko eta segituan prestatzen naiz. Lorezko arropa bat, petenta xuriak eta nire zapata beltzak soinean eman, eta azpira jaitsi naiz 10:31ean. Berak itxoiten nau atorra xuri batekin (nire begiek apreziatzen dute). Momentu horretan hasi zait tripan sentsazio bitxi bat, hori ote da filmetan aipatzen den “pinpirinak tripan izatea” espresioa? Ez dakit, baina, ezuste bezala



arribatu eta segituan mintzatzen hasten gara, nire istorioa kontatzen diot eta pixkanaka-pixkanaka elkarrengana hurbiltzen gara, muxu labur baina intentso baten emateko. Holako gauzak, bai, Laiari kontatuko nizkioke, nolabait zuk duzu, Iker, bere lekua betetzen. Berriz har dezagun gelditu naizen lekuan, eleketan segitu dugu bakoitza bere pisura igo arte.

### **Martxoaren 31, asteazkena**

Lokartzeko zail egiten zait, goizeko batak dira, gertatutakoari berriz pentsatzen dut, zalantzan ematen ari naiz, bakarrik niretzat garrantzia ote du? Espero ezetz, bere berriz ikusteko gogoia dut, ber momentu goxo bat pasatzeko... Zuri idazterakoan naiz ohartzen, uste duzu beraz amorosten ari naizela?

### **Apirilaren 1a, ortzeguna**

Gaur goizean ere amak lurrean atzeman nau, ospitalera eraman eta berriz ber medikua ikusi dugu. Aldi honetan, ordea, ama galdezka hasten da, jatekoaren, kirolaren, konfinamenduaren... ondorioak izan daitezkeenetz. Medikuak segidan ulertu du, eta esplikatu digu segur aski nire kasua anorexia kasuetariko bat dela. Irriz atrakoka hasi naiz, ulertu ezean nolaz hain neska potoloa anorexian izaten ahal den. A!, baiiii, egiaaaa, apiril arraina daaaa, Pfff, ze txiste txarra erran eta gizonak buru

serio-serio bat eman du, azken xantza bat eman dit: **berriz trenputxartzen banaiz, ospitaleratua izanen naiz.**

Autoan, amak hitz bakar bat ere ez du atera. Etxera ailegatu eta 30 minutu beranduago deitu naute aitak eta amak, horien lege berriak presentatzeko:

- Beti horiekin jan behar dut
- Nire platera bai ala bai bukatu behar dut
- Egiten dutan kirol kantitatea zainduko dute

### **Apirilaren 2a, ortziralea**

Atzo pasatakoa Lucasi kontatu beharra diot, beheitian elkartzen gara eta kontatzen diot. Entseatzen da nire kontsolatzen, baina berak ere ez luke lortuko. Bere presentziak on egiten dit, eta medikuak erran baino pixka bat normalago sentiarazten nau.

Zerbait aitortu behar dizut, erratera zaila bazait ere, zuri errateko beharra dut, jan eta gero batzuetan jasan ezina dut nire tripa betea eta goitika egi-tera behartzen naiz. Esandako hori, ez nehoi kontatu, gure artean egoten da.

### **Apirilaren 3a, larunbata**

Ez dut fisik garrantzitsu zuri aipatzeko, aski egun kalmea pasa dut... Iduritzen zait zuri nire biziaren parte handi bat kontatu dizudala, nik zutaz ezer jakin gabe.

## **Apirilaren 6a, astelehena**

Azkenean berriz atzeman zaitut!! Zer ari zinen nire arropa zikinen azpian? Hiru egun badira zure bila eta bila ari naizela. Dena den ez duzu fitsik galdu nire egoera, duela hiru eguneko ber egoerari naiz, bai burasoekin, bai Lucasekin eta baita ere nire Gorputzean.

Lucasekin berriz bizpahiru aldiz elkartu gara eta azkenean, bikotean ezarri gara, gauero berekin hizketan ari naiz, beharbada hortako da momentu horietan kasu gutiegi egiten dizudala.

## **Apirilaren 7a, asteartea**

Atzo ezin izan dizut mintzatu, eguna berriz ere ospitalean pasa baitut.

Atzo arratsaldean, amak ospitalera eraman nau, berriz trenputxartu bainaiz. Medikiak lehengo aldia abisatu bezala, ospitalean atxikitzera behar izan nau, anorexian naizela diagnostikatuz. Gaur goizean ama nire jantziak pausatzerara etorri da, eta erran bezala nire egunerokoa ekarri dit. Covida dela-eta, azken aldia izan da amak ni ikusteko parada ukan duela.

## **Apirilaren 8a, asteazkena**

Lucasekin “facetime” delako bat hasi dugu, nahiz eta presente izan, bere burua bertze nonbait dela ohartzen naiz... Zure ustez, bertze norbaiti

pentsatzen ari da? Bon, paso, jateko tenorea da, utzi behar dut. Han afruskeria bat da, nire platoa bukatu arte sala horretan egon behar naiz, tripa nahasten didan jateko usaina duen horretan. Covid istorioengatik nire logelatik ezin naiz mugitu, hau da, ezin dut kirolrik egin. Etxean baino okerrago da, aspertzen naiz.

### **Apirilaren 9a, ortzeguna**

Eguerdi honetan, jaterakoan, zaindari batek aipatu dit beharbada nire egunerokoa eta mugikorra kenduko dizkidatela, omen nire pentsamen-  
duak kutsatzen baitituzte. Zer naiz ni nire mugikor eta egunerokoa gabe? Lucasekin ezingo naiz gehiago mintzatu, bertze norbaitengana joango da eta bakarrik hemen utziko nau.

Iduritzen zait munduan eritasun hori denetik, nire bizia okerrerantz doala.

### **Apirilaren 13a, astelehena**

Atzo arratsean Macron mintzatu da eta konfinamenduaren luzatzea inposatu du, erabaki bat hartu dute: nire puskak berriz itzultzea.

Egunerokoa hartu didatenetik, nire burasoekin egoera ez da hobetu, nire gorputzean gaizki sentitzen naiz, Lucas bertze neska batekin mintzo dela eta eri bainaiz nirekin egoten dela pentsatzen dut.

Nire ustez denentzat hobeki da mundu honetatik desagertzen banaiz...

## **Maiatzaren 14a, osteguna**

Zure galderari erantzuteko, ez, zure egunerokoa ez da errauspean egonen baina nire eskupean, bihotzetik hurbil. Ez dakit ea espero zenuen pertsona naizen, baina zure segida hartuko dut. Hori guzia errateko Lucasek zaituela idazten, Elena. Zutaz hurbilago sentitzekotan eta zure besarkadez betirako oroitzekotan zure istorioari segida emanen diot...